

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Hiri-lurretako, landa-lurretako nahiz ezaugarri bereziko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren 2024ko errolda jendaurrean jartzea

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2 artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita hiri-lurretako, landa-lurretako nahiz ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren gaineko 2024ko zergaren errolda fiskala, San Martineko udal bulegoetan — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea —, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 98.3 artikularekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Zerga hori ordaintzeko epea 2024ko apirilaren 22tik ekainaren 28ra artekoa da.

Katastro-balioen kontra aurkezten diren errekurtso eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 229. artikulutik 246.era bitartekoetan xedatutakoak arautuko ditu, eta Arabako Foru Aldundi izango da berraztertze errekurtsoa ebazteko organo eskuduna.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsailaren 16an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria

JON ARMENTIA FRUCTUOSO